



“Urte hauetan sei bozka desberdin eman ditut”

Arantxa Urretabizkaia

65 urte eta erretiratzeko asmorik ez.

SUSTRAI COLINA

Argazkia: Dani Blanco

Hemen orori buruzko orotariko iritzi-emaile bat.

Nire iritzi guztiak behin-behinekoak dira. Bertsolariak bezala, gaia jarri eta bota. Ia guztiari buruz botako nuke bertso bat, baina ez naiz ia ezeri buruz bi folio idazteko gai.

Horregatik berotzen dizkizute belarriak?

Lerroatuta dagoenari asko kostatzen zaio lerroatuta ez dagoenarekin eztabaidatzea, eta nik urte hauetan sei bozka desberdin eman ditut. Horri, herri honetan %1eko desadostasuna duena beste espaloian salduta dagoela kontsideratzen dela gehituz gero...

Literaturaz hitz egin eta bakea!

Literatura? Oso jende gutxiri asko interesatzen zaio, baina gehiengoari ez zaio piperrik ardura!

Euskadi Sarien inguruko eztabaidak ez al ziren mundu gerren parekoak?

Hain pastel txikiarentzat hainbeste indar xahutzea erridikulua iruditzen zait. Eskerrak Sarrionandiak eskemak puskatu dituen, ze Euskadi Sariako finalista izateari uko egin zion bat Espainiako Sari Nazionalen parte hartzen ikusi nuela esango banizu...

Kazetaritzaren etikaren izenean, trapu zaharrak astintzeari utzi eta zure azken nobelaren gai nagusia den zahartzaroaz hitz egiteko aginduko nizuke!

Gizarteak, beldurra baino gehiago, gorrotoa

dio zahartzeari. Ezin da zaharra izan, inork ez du zaharra izan nahi, eta patetikoa da adin batetik gora itxura gaztetzeko egiten duguna. Zahartzaroari buruzko ideologia falta zaigu.

“Zahartu gara zahartu, ta ez gaude konforme...”, bertsio berria dago modan?

Egizu proba: itxurak itxura, parekoari gazteagoa dirudiela esan eta %100ek sinistu eta eskertu egingo dizu. Noiztik dauka “zahar” hitzak konnotazio negatiboa? Lehen ez al zeuden adin batetik gorakoak gizartearen gailurrean?

Eta zu 65 urte betetzear eta oraindik lan finko-rik gabe!

Baina, gaur egun, nork dauka lan finko eta segurua? Goizetik gauera *mileurista* bihurtu nintzelako bukatu nuen *3 Mariak*. Badakit horixe dela askatasunaren prezioa. Badakit estutasun horiek dauzkala aske bizitzeko hau-tuak.

Nik uste nuen idazle batentzat askatasuna liburua aurkeztean inork ulertzen ez dituen teo-riak agertzea zela.

Idazle batek ez daki zer egin duen, zer egin nahi izan duen baizik. Horregatik, hainbeste-ko sermoiak bota beharrean, utzi ditzagun gure lanak jendearen eskuetan, eta irakurleek esan dezatela egin dugunak merezi duen ala ez! ■

